

## **BORTIZKERI LEUNAK (Christine Schuhl)**

Definizioa: Ez dira tratu txarrak, ez da indarkeria, aita-ama haurrarekin konektatuta egoteari uzten dion momentuak dira. Momentu txikiak, zeintzuetan etiketa bategatik, epaiketa bategatik, keinu bortitz bategatik, ama-aita ez dago haurrari konektatuta. Momentu txikiak diren arren, maiz ematen dira, eta ziurtasun afektiborik gabeko egoeran jartzen dute haurra. Leunak dira, ama-aitaren nahia ez delako haurrari min egitea, ez dira intentzioarekin egiten, baina egunerokotasunean maiz sartzen dira.

### **Harrera eta agur momentuetan:**

- Haurraren buru gainetik hitz egin, haurra bera kontutan hartu gabe
- Beste batzuei informazio negatiboa eman
- Joan den aitaita-amamari edo zaintzaileari buruz gaizki esaka hastea
- Haurrari txupetea sistematikoki kentzea gurekin elkartzen den bakoitzean
- Haurrari txamarra kendu, mekanikoki eta haurrarekin kontaktua egin gabe
- Harrera atsegin edo serioagoa egin, haurren zaintzaileekin dugun harremanaren arabera
- Aitaita-amamarekin edo zaintzailearekin luze hitz egin haurrak zain daudenean
- Egun onik ez eman, irribarrerik ez egin
- Agurrik ez egin, aitaita-amama, zaintzailea... berandu iritsi delako

### **Jolasean:**

- Haurra, ekintza bat egitera behartzea
- Haurrari presa sartzea
- Haurraren lorpenak negatiboki komentatzea
- Zailtasunean aurkitzen den haurrari, animorik ez ematea
- Haurrak beraien artean konparatzea
- Jolas bat denbora baino lehenago moztea, ordutegia betetzearren
- Haurrarentzat egokia ez den jolas bat proposatzea
- Bikotearekin edo amama-aitaitarekin eztabaidatzea, haurrak jolasean ari diren bitartean
- Haurrari aukeratzen ez uztea
- Haurra errudun sentiaraztea, jolas edo guk esandako ekintza baten parte hartu nahi ez duelako

### **Jatorduetan:**

- Haurra jatera behartzea
- Postre gabe uztea, aurretik dagoena jan ez duelako
- Txantajetzea
- Bikotearekin, amama-aitaitarekin.... hitz egiten egotea, haurrari jaten ematen ari garenean
- Haurraren baberoa plater azpian jartzea, mugitu ez dadin
- Barruko arrokekin jan araztea, segituan siestara sartzeko
- Bakarrik jaten ez uztea, zikindu ez dadin
- Janariari buruz gaizki hitz egitea haurraren aurrean
- Platerean elikagai guztiak nahaspilatzea
- Haurrari aurpegia garbitzea abisatu gabe
- Koilararekin ahoa arraspatzea etengabe

### **Garbitasun momentuetan:**

- Fardela aldatzen ari den bitartean, bikotearekin , aitaita-amamarekin hitz egiten egotea
- Haurraren garbitasuna edota autonomia mailari buruz komentarioak egitea
- Aldatu baino lehenago, fardela usaindu eta nazka aurpegia jartzea
- Haurra garbitzen ari den momentuan, berarekin ez hitz egitea
- Haurra abisatu gabe hartzea, fardela aldatzera eramateko
- Haurrari itsusia dela, usai txarra dariola esatea, lodi dagoela esatea, zikina dela esatea
- Haurrari komunera joaten ez uztea
- Haurra denbora luzez komunean edo pixontzian uztea
- Haurrari haserre egitea, aldatu ostean kaka egin duelako

### **Siesta orduan:**

- Haurra lo egitera behartzea
- Haurrak logura edukita, lo egitea debekatzea
- Haurra bortizki esnatzea
- Haurra lasai esnatzea, esnatze faseak errespetatuz
- Lo gela edo espaziotan altu hitz eitea, haurrek lo hartu behar dutenean
- Haurrak koltxonetan edo ohetan gelditu mantentzea
- Haurrari aurpegia izaraz tapatzea lokartu dadin
- Haurra logelan isolatzea sistematikoki
- Haurrari tartetxo bat ez eskaintzea esnatzen den momentuan

**Egunean zehar:**

- Hurrei bere izenez ez deitzea, bere identitatea errespetatu gabe
- Haurren inguruko epaiak egitea
- Haurra debaluatzea
- Haurri hirugarren pertsonan hitz egitea
- Haurren aurrean, amama-aitaitaz edo zaintzaileaz gaizki esaka aritzea
- Haurri mukiak kentzea, baimen eta abisu gabe
- Haurri goitik hitz egitea, makurtu gabe